

# KOSTUEN EGITURAK

Atal honetan kostuen egiturei buruz hitz egingo dugu, hau da gure enpresa martxan jarri eta gero sortuko dituen gastuen bilketa bat. Kostu hauek ondo ulertzeko taula bat osatu dugu.

## 1. Kostu finkoak:

### 1.1 Azpiegitureei eta materialei lotutako kostuak:

Alde batetik, lokalaren gastua dugu. Enpresa Bilbon kokatuta egongo den lokal bat erabiliko du, eta hilean 400 euroko gastua izango du. Urteko kalkulua eginez, lokalaren alokairuak 4.800 euroko gastua izango da. Enpresa txikia eta berria denez lokal txiki bat alokatzea egokia dela pentsatu dugu, hau da co-workingneko lokal batean. Horren ondorioz, wifia, ura, argia, besteak beste, barne egongo dira co-workingneko lokalean.

Bestalde, ekipamendu informatikoa ere kostu finkoa da. Enpresak lehendabizi bost ordenagailu erosiko ditu langileentzako, bakoitza 800 eurokoa. Guztira, 4.000 euroko inbertsioa egin da etorkizun batean ekipamendu informatiko hauetatik dirua lor daitekeelako. Ordenagailuak lan egiteko beharrezko tresnak dira, enpresaren web gunea edo aplikazioa interneten bidez doalako.

Halaber, enpresak lehendabizi bost mugikor alokatuko ditu langileentzat. Euskalteleri alokatutako mugikorrak izango dira, bakoitza 13 euro hilabetero izanik eta urtero 780 euro izango dira, erostea baino askoz be merkeagoa. Mugikorrak komunikazioa bermatzeko ezinbestekoak dira, bai bezeroekin bai beste enpresekin harremanetan egoteko.

### 1.2 Zerbitzuak:

Enpresak zerbitzu digitalekin lotuta hainbat gastu ordaindu beharko ditu:

- Web orria + aplikazioa → 100.000 euro ordainduko ditugu beste enpresa bateri web gunea eta aplikazioa sortzeko eta diseinatzeko.
- Web orriaren + aplikazioaren → 10.000 euro ordainduko ditugu urtero web gunearen mantenimendu egiteko, hau da back-up ak eta aldaketa teknikoak egiteko.
- Hosting-a → 7,20 euro hilabetero ordainduko dugu eta honekin lortzen duguna serbidore bat alokatzea gure web gunearen informazioa gordetzeko.
- Domeinua → 8,99 euro urtero ordainduko dugu enpresaren interneteko helbidea lortzeko eta holan jendea erraz kontaktatu ahalko du gurekin.
- Egutegi interaktiboa → 16 euro hilabetero ordainduko dugu gure web gunean egutegi interaktibo bat izan ahal izateko, hau da Calendly aplikazioa erabili

ahal izateko. aplikazio honen bidez bezeroekin batzarrak eukitean erreztasuna emango digu.

- Bideokonferentzietarako plataforma → 7 euro hilabetero ordainduko ditugu gure bezeroekin batzar online izateko, hau da beste herrialde bateko bezeroekin kontaktatzerakoan errestazuna emango digu.

Zerbitzu hauek aukera ematen dute enpresak presentzia digitala izateko, bezeroekin harremanetan egoteko eta lana modu errazan eta hobeen antolatzeko.

### **1.3 Langileen kostuak:**

Langileei lotutako gastuak dira kostu finko garrantzitsuenetakoak. Enpresak bost langile ditu eta soldatek urtean 82.860 euroko gastua sortzen dute guztiek soldata minimoa kobratzen, hau da enpresaren lehenengo urteetan lehendabizi lagileei soldata minimoa emango zaie enpresa aurrera joateko ideiarekin. Enpresaren langileak gu geuk izango gara eta geroago enpresa handitzen joan ahala pertsonal gehiago hartzeko posibilitatea izango dugulakoan gaude.

### **1.4 Publizitatea:**

Publizitatearen gastua jarduera edo kanpaina jakin batzuen araberakoa da. Guztira, 10.000 euroko gastua sortzen du gure enpresa publizitate arloan, jakinik unibertsitateetara joatean egindako hitzarmenen gastuak, emandako publizitateetarako paper gastuak, beste web gunetan publizitatzean (sare sozialeetan, unibertsitateen web gunetan,...) besteak beste.

## **2. Kostu aldakorrak:**

### **2.1 Banku komisioak:**

Bestalde, banku-komisioak daude. Kobratze bakoitzako bankuak komisio bat kobratzen du, kasu honetan 0,03 euro pertsona bakoitzeko dira. 100.000 eragiketa eginez gero, guztira 3.000 euroko gastua sortzen da.

### **2.2 Erabiltzailearen mantenu kostua aplikazioan:**

Gainera, erabiltzailearen mantentenu kostua ordaindu beharko dugu, 0,05 euro hilabetero pertsona bakoitzeko eta 100.000 pertsona direnez urtero 60.000 euro izango dira. Hau da, erabiltzaile bati zerbitzu bat ematen jarraitzeko behar diren gastu guztien multzoa.

## **3. Hasierako inbertsioa:**

Gure enpresa martxan jarri ahal izateko, lokalaren kostua lehenengo hilabetekoa, web gunea + aplikazioa sortzea eta langileen soldata lehenengo hilabetekoa beharrezkoa da. Hau da 107.305 euroko hasierako inbertsioa behar ditugu gure enpresa hasi ahal izateko.

| Kostu finkoak:                             |                  |                          |             |             |              |                                                        |
|--------------------------------------------|------------------|--------------------------|-------------|-------------|--------------|--------------------------------------------------------|
| Kontseptua                                 | Unitate          | Prezioa                  | Hilabetea   | Urtea       | Guztira      | Informazio gehigarria                                  |
| Lokala                                     | 1                | 400,00 €                 | 400,00 €    | 4.800,00 €  | 4.800,00 €   | Bilbon                                                 |
| Ordenagailua                               | 5                | 800,00 €                 |             | 4.000,00 €  | 4.000,00 €   | El Corte Inglés                                        |
| Mugikorrak                                 | 5                | 13,00 €                  | 65,00 €     | 780,00 €    | 780,00 €     | Euskaltel                                              |
| Web orria + aplikazioa                     | 2                | 50.000,00 €              |             |             | 100.000,00 € |                                                        |
| Web orriaren + aplikazioaren mantenimendua | 2                | 5.000,00 €               |             | 10.000,00 € | 10.000,00 €  |                                                        |
| Hosting                                    |                  |                          | 7,20 €      | 86,40 €     | 86,40 €      |                                                        |
| Domeinua                                   |                  |                          |             | 8,99 €      | 8,99 €       |                                                        |
| Egutegi interakiboa                        |                  |                          | 16,00 €     | 192,00 €    | 192,00 €     | Calendly                                               |
| Meet                                       |                  |                          | 7,00 €      | 84,00 €     | 84,00 €      | Google Meets                                           |
| Publizitatea                               | klik-en bidez    | 10.000,00 €              |             | 10.000,00 € | 10.000,00 €  | Unibertsitateeta ko web guneetan, sare sozialeetan,... |
|                                            |                  |                          |             |             |              |                                                        |
| Langileak:                                 |                  |                          |             |             |              |                                                        |
| 1.Soldata                                  | 5                | 1.381,00 €               | 6.905,00 €  | 82.860,00 € | 82.860,00 €  | 8h egunero (soldata minimoa urtero)                    |
|                                            |                  |                          |             |             |              |                                                        |
| Kostu aldakorrak:                          |                  |                          |             |             |              |                                                        |
| Kontseptua                                 | Unitate          | Prezioa                  | Guztira     |             |              |                                                        |
| Kobratzeagatiko banku-komisioak            | 100.000 pertsona | 0,03 pertsona bakoitzeko | 3.000,00 €  |             |              |                                                        |
| Erabiltzailearen mantenu komisioa          | 100.000 pertsona | 0,05 euro hilabetero     | 60.000,00 € |             |              |                                                        |
|                                            |                  |                          |             |             |              |                                                        |
| <b>KOSTUEN BATURA:</b>                     | 275.811,39 €     |                          |             |             |              |                                                        |